

## **Mungiak aurrera egiten jarraituko du aukera-udalerrri kohesionatuago eta berdeago batean**

- Mungia 2023-2027 Agintaldi Planak 83 jarduera jasotzen ditu 7 ardatz estrategikotan antolatuta: Mungia irisgarria, konektatua eta segurua; Mungia iraunkorra eta solidarioa; Mungia pertsonekin; Mungia nortasun propioarekin; Mungia eta bere auzoak; Mungia garapen ekonomikoarekin; Mungia kudeaketa eraginkorrarekin.

- Plana egituratzeko erabili den garapen-eredua bat dator 2030 Agendak eta Garapen Iraunkorreko Helburuek (GJH) ezartzen dutenarekin.

- Planaren esparruan aurreikusitako ekintza guztiak ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-garapenaren arteko oreka lortzea du helburu.

- Plana webgunearen bidez aldizka kontuak emateko eta udalerriko herritarrekin eta eragile garrantzitsuekin aurrez aurreko topaketak egiteko dinamika baten barruan sartzen da.

**Mungia, 2023ko azaroaren 30a.** Mungia Udalak badu hemendik 2027rako ibilbidea markatuko duen ibilbide-orria. 2023-2027 Agintaldi Planak 83 jarduera jasotzen ditu 7 jarduera-ardatz estrategikotan antolatuta, aukera-udalerrri kohesionatuagoa eta berdeagoa izan dadin. Hori guztia pertsonak erdigunean dituen eta ingurumena errespetatzen duen garapen iraunkorreko eredu baten barruan.

Aste honetan zehar, gobernu taldeak dokumentua udaletxe barrutik eman die ezagutzera, bai gainerako alderdi politikoei, bai Udaleko langileei, eta gaur bere web orriaren bidez eman du horren berri. Datozen egunetan mungiarrek ale bat jasoko dute euren etxeetan.

Mungia 2023-2027 Agintaldi Plana egituratzeko erabili den garapen-eredua bat dator 2030 Agendak eta Garapen Iraunkorreko Helburuek (GJH) ezartzen dutenarekin. Ildo horretan, gogoratu behar da Mungia Udalak erabateko konpromisoa duela ekimen global honekin, uste osoa baitu herri eta hiri bakoitza hobetuz planeta osoan hobetzen laguntzen dela.

“Oreka lortu nahi dugu garapenaren hiru dimentsio handien artean: gure udalerriko ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa, uste baitugu funtsezkoa dela gaur egungo Mungia hobetzeko eta, aldi berean, etorkizuneko Mungia hobetzeko, helburu bakar batekin: mungiarren bizi-kalitatea hobetzea”, ziurtatu du Alaitz Erkorekak, Mungia alkateak.

Garapen iraunkorreko eredu horren esparruan aurrera egiteko, Mungia Udalak 3 gakoetan oinarrituta lan egingo du 2023-2027 legegintzaldian: berezko nortasuna eta balioak balioan jartzea; lurralde-oreka, Mungia auzo guztiak berdin gara daitezen; parte-hartzea eta lankidetzeta, Mungia eraikitzeke modua bezala.



Guztira, Mungiako 2023-2027 Agintaldi Planak 83 jarduera jasotzen ditu 7 ardatz estrategikotan antolatuta: Mungia irisgarria, konektatua eta segurua; Mungia iraunkorra eta solidarioa; Mungia pertsonekin; Mungia nortasun propioarekin; Mungia eta bere auzoak; Mungia garapen ekonomikoarekin; Mungia kudeaketa eraginkorarekin.

“Lan-dokumentu bat egin nahi izan dugu, gure eguneroko jarduera sendotzeko eta gure burua neurtzeko. Plan hau oso tresna garrantzitsua izango da 2027rako lanerako. Jasotzen denarekin dugun konpromisoa irmoa da. Horregatik, Plana bera kontuak emateko dinamika batean sartzen da, helburu bikoitzarekin: alde batetik, kudeaketa hobetzeko pizgarri gisa, kontuak emateko betebeharrak eskatzen duen eskakizuna bere gain hartzen baitu; eta, bestetik, Mungiako herritarrei hartutako konpromisoen aurrerapena neurtzeko sistema garden bat eskaintzeko aukera emango digu. Guztion artean Mungia hobea eraikiko dugulako”, azaldu du Erkorekak.

Horretarako, Plana osatzen duten jardueren aurrerapen-mailari buruzko aldizkako informazioa argitaratuko da Udalaren webgunean, eta aurrez aurreko topaketak egingo dira herritarrekin eta udalerriko eragile garrantzitsuekin, lehentasunezko jarduketan egoera aurkezteko eta balorazioak eta proposamenak jasotzeko.